

merca **B**ilbao



JASANGARRITASUN MEMORIA




MEMORIA DE SOSTENIBILIDAD

2025



merca (B) ilbao

2025eko JASANGARRITASUN MEMORIA



2025

merca Bilbao

1 EDITORIALA

2 ELIKAGAIEN HIRIA

3 NORTZUK GARA MERCABILBAO

4 BEZEROEK SENTITZEN DUTENA

8 DATU ESTATISTIKOAK

5 IKUSKAPENAK

9 ZENBAKI EKONOMIKOAK

6 INGURUMENA ETA KALITATEA

10 KUDEAKETA-TXOSTENA


7 ORGANIGRAMA

11 GJH ADIERAZLEAK

12 AUTOBABESA ETA SEGURTASUNA

13 HOBEKUNTZAK

14 GRI AURKIBIDEA



Mercabilbao, elikaduraren eta lurraldearen zerbitzurako gune estrategikoa

2025eko ekitaldia sendotzeko eta aurrera egiteko beste urtebete izan da Mercabilbaon, baina, batez ere, herritarrei zerbitzua emateko, gobernu onaren printzipioei eta IGG ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak gogoan aurrera eginez. Hala, berretsi egin dugu garapen iraunkorrek eta interes orokorrek dugun konpromisoa, Mercabilbao GJHeikin eta 2030 agendarekin lerrotatzean erreferentziako hamar erakundearen artean 2025eko otsailean aipatu izanak bermatu moduan.

Euskadiko erreferentzia-merkatu zentrala den aldetik, Mercabilbaok funtsezko zereginari eutsi dio 2025ean elikagaien hornidura bermatzeko, ziurtatuz 257.790 tona produktu baino gehiago kalitate-, segurtasun- eta eraginkortasun-baldintzetan hornitzea. Fruta, barazki, arrain eta beste produktu batzuen arloetako merkataritza jarduera logistikoa banatzeko esparru eraginkorra izan du aurrean ere Mercabilbaon, elikadura-kateak egoki funtziona dezan lagunduz. 700 milioi euro inguruko jarduera ekonomiko horrek enplegua sortzen du, enpresa-sarea dinamizatzen du, eta eragin positibo zuzena du ingurunean, guztiak ere Mercabilbaoren konpromiso sozialaren parte diren alderdiak.

Ingurumen-arloan, jardunbideak finkatu dira, jomugatzat hartuz eraginkortasun energetikoa hobetzea, baliabideen kontsumoa optimizatzea eta hondakinak arduraz kudeatzea. Merkatuko enprekin eta administrazio publikoekin lankidetzan garatutako ekimen horiek lagundu egiten dute, bai jardueraren ingurumen-inpaktua murrizten eta bai ingurunea gehiago errespetatzen duen merkatu-eredurantz

joaten. Erakusletzat balio digu hondakinak garbitzeko eta kudeatzeko kontratu berria indarrean sartzea, hondakinak murrizteko eta balorizatzekeo apustua berriro azpimarratuz. Mercabilbaoko esparruan karbono-aztarna pixkanaka murriztu ahal izango dugu, makineria eta garraio-elementuak, geureak zein kontratatutako hirugarrenenak, elektrifikatuta, alde batetik, eta ibilgailuentzako karga-estazio bat irekita, bestetik.

Ekitaldian zehar, azpiegiturak modernizatzeko eta guztientzako zerbitzuak hobetzeko inbertsioak eta jarduerak burutu dira, betiere, jasangarri eta eraginkor aritzearen ikuspegia aintzat hartuta. Ikuskeraz estrategikoa jakin baten jarduerak dira horiek, Mercabilbao epe ertainean lehiakorra izan dadin ziurtatzeko asmoz, barrutia sektorearen eskakizun berrietara egokituz, digitalizazioak eta berrikuntzak eragindako erronkei adi, Mercabilbao next izateko jauzia gauzatu bitartean. Beste zenbaiten arteko aukera izango da hori, balioa sortzeko eta azpiegitura estrategikoa moduan daukan eginkizuna indartzeko, Ipar Atlantikoko Korridorearen baitan, oinarri hartuta interes-taldeekin elkarriketa, lehiaren defentsa, gardentasuna eta etengabe hobetzea.

Arlo sozialean, pertsonetik daukan konpromisoa du orain ere jardueraren ardatz nagusi. Ekitaldian zehar, lan-ingurune segurua, ordenatua eta eraginkorra bermatzea etengabeko lehen tasuna izan da, lau urterako sinatutako hitzarmen kolektiboak erakusten duenez. Merkatuko eguneroko jarduna milaka langileren ahaleginari eta profesionaltasunari zor zaio, eta erakundearen erantzukizun sozialaren atala da segurtasuna, bizikidetzeta eta aukera-berdintasuna bultzatzen dituzten baldintzak sustatzea. Horrez gain, lurralde- eta gizarte-kohesioko eragile lanetan daukan eginkizuna indartzen jarraitu du Mercabilbaok, aukera emanez elikagai fresko kalitatezkoak eskuratzeko bai herritarrei oro har, eta bai horretarako baliabiderik ez dutenei, Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin lankidetzan arituta.

Beste behingoan ere, lankidetzeta funtsezko elementua izan da 2025ean. Mercabilbaok ekinean parte hartzen jarraitu du Estatuko Mercasa merkatu sarean eta Basque Food Clusterrean, jardunbide egokiak partekatuta. Lankidetzeta horrek sendotu egiten du merkatuak joerak aurreikusteko eta helburuekin bat datozen irtenbideak emateko duen gaitasuna. Izan ere, Gobernantza da Mercabilbaoren jardueraren funtsezko beste zutabeetako bat. 2025ean, jarraitu egin dugu kudeaketa-sistema aurreratua hobetzen, barne-kontrolako mekanismoak indartzen eta kontuak ematen, bermatu ahal izateko interes publikoari komeni zaion kudeaketa gardena eta eraginkorra.

2025eko Urteko Txosten honetan bildu ditugu ekitaldiko mugarr nagusiak, Mercabilbaok ESG irizpideen eta GRI estandarren arabera kudeaketarekin duen konpromisoa islatuta. Eskerrak eman nahi dizkiegu merkatuko enpresei, langileei, akziodunei eta erakundeei, orobat inplikazioz eta konfiantzaz elkarlanean diharduten eragile guztiei. Elkarren arteko ahalegin horri esker, 54 urte geroago elikagaien hornikuntzan erreferente izaten jarraitzen du Mercabilbaok, garapen iraunkorrerako funtsezko aktiboa izanez Bilbo, Bizkaia, Euskadi eta bere eragin-eremuan.

Nor gara gu?

Iberiar Penintsula iparraldeko eta Frantziako hegoaldeko elikagai galkorrak banatzeko zentrorik handiena da Mercabilbao. 13 Ha baino gehiagoko azalera, merkataritza-gune handi honetan merkatu espezializatu multzo bat dago bilduta, handizkako ehunen bat enpresa jardunean direla, kalitate-berme handieneko produktu-sorta zabala eskaintzen. Eguneko 24 orduetan irekita izanik, 257 mila tona elikagai merkaturatzen dituzte urtero, Euskadin eta eskualde mugakideetan 3 milioi pertsona ingururengana iristen direnak. Bai egunean mugitzen diren produktuen dibertsitateari esker, bai salmenta-ordutegi zabalari esker, produktu freskoen banaketan posizio aipagarria daukan merkatua da. Elikagai-zentroaren posizionamenduak aukera ematen dio inguruko nekazaritza-kooperatiba garrantzitsuen erreferentzia izateko; horiek produktuak merkaturatzeko saltoki indartsua da Mercabilbao, eta, horri esker, 0 km-ko produktuak sustatzen ditu.



Zugandik hurbilagoko zerbitzuak

Mercabilbaok aparteko kokapena du, Paris-Hendaia - Madril ardatzaren lotunetik hurbil-hurbil, Bilboko portutik eta Bilbo-Loiu aireportutik 20 kilometro eskasera. Era berean, pabiloi operatiboen arabera banatzen da Mercabilbao, nabarmenenak honako hauek: fruta eta barazkien merkatua, arrain eta itsaskien merkatua eta balio anitzeko merkatua. Elikagai-hiri moduan Mercabilbao kudeatzeko eta denak egoki funtzionatzeko, 24 ordu/7 eguneko zerbitzu osagarriak behar ditu, hala nola zaintza, garbiketa, hondakinen kudeaketa, instalazioen mantentze-lanak eta aparkalekua. Mercabilbaon funtzionamendurik onena lortzeko eta pertsona guztiei beren jarduketak eta eguneroko lanak errazteko, azpiegiturak hobetzeko obrak egiten dira.


257.000 tona
elikagai urtean
13 Ha-ko azalera
24 ordu,
365 egun zabalik

Akziodunak

Mercabilbao Bilboko Hornidurako Merkatu Zentralak S.A.k bi erakunde juridiko ditu partaidetzan. Honako memoria honek 2026ko ekitaldia jaso du, eta argitaratutako azkena 2024koa da.

Memoria hau "2022-26 Plan Estrategikoaren" barruan dago, zeinetan azalduta dauden Mercabilbaok ekonomiaren, enpresaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen analitikora bideratutako jarduerak; aipamen berezia egin zaie Mercabilbao osatzen duten interes-talde guztien misioari, ikuskerari, balioei eta beharrei, horiek guztiak funtsezkoak izan baitira honako memoria-txosten hau lantzeko garaian.

Bilboko Udala: % 60,63 | Mercasa: % 39,37



Web: www.mercabilbao.eus

Tel: 944 492 758

Bulegoak: Ibarreta auzoa, 1. zbk
Basauri 48970 Bizkaia

Email: mercabilbao@mercabilbao.eus

Presidentea

Juan Mari Aburto Rique

1. Presidenteordea

Clara Valtueña Heredia

2. Presidenteordea

Concepción Claver Zurro

Kontseariak

Asier Abaunza Robles

Marta Ajuria Arribas

Francisco Javier Garcinuño Zabala

Yolanda Díez Saiz

María José Pérez Ruiz

Laura Torre Álvarez

Idazkaria

Gonzalo Ruiz Aizpuru

Zuzendari Nagusia

Aitor Argote Ibáñez

EGITEKOA · IKUSKERA · BALIOAK

Elikaduraren sektoreari kalitatezko produktu freskoak eta eratorriak merkaturatzeko eta logistikarako zerbitzu integrala eskaintzen dion Euskadiko Elikagai Unitate Publikoa gara, erantzukizun sozialeko irizpideak jarraituta, elikagaien segurtasuna, gardentasuna eta merkatuetako lehia herritarren mesedetan bermatzen duten azpiegituren bitartez.

Euskadiko Elikagai Unitate Integral erreferentea izateko lanean gabiltza Mercabilbaon, gure bezeroei kalitatezko zerbitzuak ematea ziurtatzeko, osasun- eta kalitate-bermetzat aitorpena jasota izango duen marka-irudiarekin. Aldi berean, gure ingurunearen garapen sozioekonomikoa sustatzen dugu, garapen iraunkorreko helburuen ildoan. Hori guztia baliabideak efizientziaz erabiltuta, kudeaketa aurreratuz, berrikuntzaz eta pertsona konprometituz.

Inplikazioa · Bezeroei begira · Profesionaltasuna, efizientzia eta talentua**Gardentasuna eta gobernu ona · Ingurumen-konpromisoa · Bikaintasun-konpromisoa · Berdintasuna**

Bezeroek sentitzen dutena

Mercabilbaoren lanaren funtsezko zutabeak dira, besteak beste, bai kudeaketa aurreratua eta bai egunero Basauriko barrutian egunero lan egiten duten enpresa eta pertsona guztientzat kalitate handiko instalazio irigarriak izatea. Ildo horretan aurrera jotzeko asmoz, Elikadura Unitateak asebetetzeari buruzko inkesta bat egin du duela gutxi, nola handizkarietara hala txikizkarietara galdetuta.

Inkesta horien emaitzak honako hauek dira:

HANDIZKARIAK:

Asebetetze orokorra: 6,71



Notak:

Mercabilbaoko langileak: 7,93
Garbiketa: 7,29
Segurtasuna-Kanpoko langileak-Hondakinak: 6,93



Notak:

Mugikortasuna: 6,50
Mantentze lanak: 6,21
Sustapena: 6,57

TXIKIZKARIAK:

Asebetetze orokorra: 7,18



Notak:

Irteteko denbora: 7,76
MercaBilbaoko langileak: 7,76
Komunikazioa: 6,91



Notak:

Aparkalekua: 6,03
Merkatuaren sustapena: 6,29
Sarbideak: 6,12



**6,71 asebetetze
handizkariak**
**7,18 asebetetze
txikizkariak**

Obrak

Egindako obrak: 31

Egindako desinfekzioak: 257

Konpontzeko abisuak: 178

Egindako konponketak: 272

Kutxatilak berrezartzea: 15

Fruta-nasetako lurzorua m² kop.: 425 m²

Asfaltatutako lurzoru m² kop.: 1.600 m²

Arrain-pabilioiko lurzorua m² kop.: 100 m²

Bideetako pintura m² kop.: 750 m²

Ikuskapenak

Osasun-agintaritzak egunero egiten ditu ikuskapenak Mercabilbaoren baitan, honako alderdi hauek egiaztatzeko:

- Instalazioen garbitasuna eta higieena, eta elikagaiak manipulatzeko jardunbide egokiak.
- Merkaturatutako salgaiak ontziratu eta etiketatu.
- Elikagaiak kontserbatzeko eta erakusteko baldintzak.
- Langileen prestakuntza eta higieena.
- HACCPan oinarritutako autokontrolako planak ezartzea.
- Establezimenduen osasun baimentze-baldintzak izapidetzea eta kontrolatzea.
- Merkaturatutako elikagaien kaltegabetasuna.

Asteroko laginketak ezartzen dira merkaturatutako elikagaiak honako hauek betetzen dituzten egiaztatzeko:

- Indarrean dagoen legerian ezarritako irizpide mikrobiologikoekin bat datozen.
- Hondakinei, kutsatzaileei eta debekatutako substantziei buruzko komunitateko legeriarekin bat datozen.
- Kanpaina bat egiten da etiketatze egokia eta atzerriko produktuen kalitatea kontrolatzeko.



SALGAIA	Kg. Merkaturatuak	Ikuskapen kop.	Errutina-ikuskapenak	Kontrol ofizialak
Arrainak eta itsaskiak	20.343.932	312	194	118
Frutak, barazkiak eta gainerako pabilioiak	235.854.570	214	211	44

SALGAIA	Kg. Merkaturatuak	Ikuskapen kop.	Errutina-ikuskapenak	Kontrol ofizialak
Arrantza-salgaiak	Mikrobiologikoak	26	16	0
Arrantza-salgaiak	Parasitoak	70	60	0
Entsaladako barazkiak	Mikrobiologikoak	18	26	1

Ingurumena eta kalitatea

Bai ESG estrategiaren esparruan, eta bai guk ingurumen, gizarte eta gobernantza mailan ditugun kontzientziazio-balioen baitan, zerbitzua kalitate bikainez kudeatzea funtsezkoa denez, alderdi hori buru-belarri lantzen jarraitzen dugu. Horren harira, 2025ean ISO 9001 eta 14001 ziurtagirien jarraipena egiteko auditoriari ekin zaio, eta bi ziurtagiriak berriro dira. Auditoreek ez dute "adostasun-ezik" identifikatu, eta, azken txostenean, hobetzeko aukerak nahiz erakundearen indarguneak nabarmendu dituzte. Era berean, kudeaketa aurreratua eredu lantzen jarraitzen dugu, 2019an Euskaliten "Zilarrezko A" aitortza eskuratu ondoren, eta 2014tik indarrean dagoen "compliance" kanpoko ziurtagiria berriro zen 2025ean.

Erakundeak oinarri dituen prozesuak antolatzeko egitura GJH Garapen Jasangarriko Helburuetara bideratuta dago; horiek dira 2022-2026 plan estrategikoa egiteko oinarria. 2025eko otsailean burutu zen Euskadi Agenda 2030 sariaren lehen edizioan, Aurreratua kategorian saritutako 10 erakundeetako bat izan zen Mercabilbao; GJHekiko lerrokatze-mailaren kanpo-ebaluazioan atalase aurreratua gainditu duten erakundeak aintzatesten dira kategorian horretan. Energia-eraginkortasunera, hondakinen murrizketara eta elikadura-ekosistema arduratsua sustatzera bideratutako kudeaketa jasangarriaren emaitza izan zen aitortza hori.

Aurrekoaren ildo berean, Mercabilbaok garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa integralaren aldeko apustua egina du aspalditik, hondakinak kudeatzerekin batera doana, instalazioetan higie eta osasun mailako baldintzarik onenak bermatzeko, Elikagaien Unitatea osatzen duten enpresa eta pertsona guztien eguneroko jardura behar bezala garatzen dela ziurtatuz.

Hondakinak gaika biltzean, estrategia eraginkorrak lantzen jarraitzen du Mercabilbaok, birziklatze-kuotak handitzeko eta hondakinak biltzeko sistema etengabe hobetzeko, horiek murrizteko eta edukiontzietan horien balorizazioa eta sailkapena handitzeko. Gainera, handizkarien kolektiboaren lankidetzarekin eta ahaleginarekin batera, Mercabilbaok ahalik eta hondakin gutxien sortu nahi ditu, eguneroko jardura behar bezala garatzeko, gero eta garbiagoa eta seguruagoa izango den Elikadura Unitatea lor dezagun.



2025eko ekitaldiko ingurumen-magnitude nagusiak:

- Ur-kontsumoa: 29.893 m³ (30.315 m³ aurreko urtean), % 1,39 gutxiago. Enpresa handizkariak gutxiago kontsumitzeagatik eta 2025ean izotz-fabrikak jardura eteteagatik, batez ere.
- Kontsumo elektrikoa: 7.952 mila kWh, aurreko urteko 7.846 mila kWh-ekiko % 1,35 gehiago. Gorakada txiki hori hozkailuetan gehiago kontsumitzeari dagokio batik bat.
- Urteko hondakin-bilketa, guztira: 2.912 Tn (2024an 3.211 Tn), % 0,87 gutxiago, hau da, sarrera-salgai guztien % 1,129.
- Hiri-hondakintzat hartzeko hondakinak: 1.935 Tn bildu dira, % 4,49 gutxiago (aurreko urtean baino 91 Tn gutxiago).
- Hondakin organikoen balorizazioa: 458,1 Tn (2024an 630,9 Tn), % 27,38 gutxiago.
 - Fruten eta barazkien organikoa: 271,9 Tn (% 39,25 gutxiago).
 - Arrainaren organikoa: 186,2 Tn (% 1,61 gehiago).
- Beste hondakin balorizatu batzuk:
 - Zura: 473 Tn (% 3,68 gehiago).
 - Papera eta kartoia: 38,5 Tn (% 56,45 gutxiago).
 - Poliespana: 7,3 Tn (% 22,76 gutxiago).
- Birziklatutako ehuneko osokoa hondakin guztiekiko: % 33,5 (sarrerako salgai guztien % 0,379).

Karbono-aztarna

Mercabilbaok BEG Berotegi Efektuko Gasen isurketen inventarioa egin du, aintzat hartuta hainbat kontsumo, hala nola erregaiena, ibilgailu propioena, gas hozgarriena, instalazio termikoena eta erositako elektrizitatearena.

Mercabilbaoren gas isurtze ia guztiak gas hozgarrietakoak eta instalazio finkoetako ekipoetakoak dira (guztizkoaren % \approx 99,8), neurri txikiagoan ibilgailuen flotakoa (% \approx 0,2), eta hornidura elektrikoak ez du zeharkako emisiorik eragiten, % 100 jatorri berriztagarrikoa izatea ziurtatuta.

Berotegi-efektuko gas isurtzeak murrizteko ezarritako neurrien artean, errekuntza-furgetaren ordezkari bat erabiltzen da, eta, horri esker, urtean 0,35 CO₂ tonako murrizketa egin daiteke.

Berotegi Efektuko Gasen isurketak murrizteko datozen urteetan hartu beharreko neurrien artean, instalazioen energia-eraginkortasuna hobetu behar da, eta gas hozgarriak ordezkatu:

- R-404A – R-448A: berotze globalaren potentziala % 65 inguru murriztu.
- R-134a – R-513A: berotze globalaren potentzialaren % 56 inguru murriztu.

Horren bitartez, 215,35 tCO₂ isurtzetik 107 tCO₂ isurtzera igarotzea eragin daiteke.

Jasangarritasuna - Kargagunea, autoa eta orga elektrikoa

Mugikortasun elektrikoa bultzatzeko asmoz, Mercabilbaok ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bat instalatu du, karga ultrabizkorreko lau karga-leku dituen, horietako hiru ibilgailu arinentzat eta bat kamioi elektrikoentzat egokitua, horietako bakoitza 200 kW-eko potentzia duena.

Ekimen horren bitartez, Bilboko metropoli-eremuko garraioaren elektrifikazioa bideratu da, bizkaitarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduz, garraioa eta, oro har, ekonomia deskarbonizatuz. Azpiegitura hori baliatuta, tokiko enpresen lehiakortasuna bultzatuko da, eta aurrera egingo da mugikortasun iraunkorragoa lortzeko, enpresa-sarearen eta herritarren benetako premiei erantzun diezaien.

Instalazioa Mercabilbaok jasangarritasunarekin daukan konpromisoaren baitako erabakia da, salgaien garraioari eta barne-zirkulazioari lotutako emisioak murrizteko, 11. GJHrekin eta 2030. Agendarekin hartua duen konpromisoaren barruan.

Ildo horretan bertan, furgoneta industrial zaharra furgoneta elektriko berri batekin ordezkatu da, horrela klima-aldaketaren ondorioak gutxitzen laguntzeko. Era berean, lurpeko aparkalekuan leku bat egokitu da ibilgailua kargatzeko, eta kargagailua instalatu da han.

Bestalde, orga jasotzaile elektriko bat erosi da mantentze-lanak egiteko eta horietan laguntzeko.



FRUTA GUZTIZKOA..... 235.495.062 kg

Ipar-zonaldea:	30.874.265	(% 13,11)
Erdialdeko zonaldea:	48.606.643	(% 20,64)
Kanariak:	102.283.628	(% 43,43)
Europa:	15.159.420	(% 6,44)
Afrika:	13.468.122	(% 5,72)
Amerika eta besteak:	24.679.906	(% 10,48)
Besteak:	423.078	(% 0,18)



235.000Tn
FRUTA GUZTIZKOA

**FRUTAK eta PLATANOAK (Jatorria kg-tan):**


Andaluzia:	17.988.158
Errioxa:	4.280.668
Valentziako E.:	26.571.040
Gaztela eta Leon:	15.778.335
Euskadi:	48.739
Maroko:	214.562
Europa:	13.057.525
Murtzia E.:	1.695
Nafarroa:	7.234
Aragoi:	1.488.550
Madril E.:	3.050.546
Ciudad Real:	2.333.681
Extremadura:	3.710.570
Amerika:	24.105.163
Katalunia:	6.970.430
Kantabria:	203.692
Afrika Besteak:	1.553.431
Kanariak:	22.473.625
Galizia:	13.180.274
Asia:	120.649

BARAZKIAK (Jatorria kg-tan):

Andaluzia:	17.285.907
Errioxa:	95.478
Valentziako E.:	357.214
Gaztela eta Leon:	22.854.276
Euskadi:	4.206.914
Maroko:	489
Europa:	2.101.895
Murtzia E.:	421.383
Nafarroa:	8.818.560
Aragoi:	474.274
Madril E.:	9.606
Ciudad Real:	210.026
Extremadura:	659.603
Amerika:	454.094
Katalunia:	8.674.430
Kantabria:	6.811
Afrika Besteak:	11.699.640
Galizia:	25.895



ARRAINA GUZTIZKOA:	20.340.116 kg	
Ipar-zonaldea:	6.770.797	(% 33,29)
Ardatz atlantiarra:	2.562.542	(% 12,60)
Europa:	4.026.270	(% 19,79)
Gainerakoak:	6.980.507	(% 34,32)



20.340Tn
ARRAINA GUZTIZKOA



ARRAIN FRESKOA (Jatorria kg-tan):

Afrika Besteak:.....	110.806
Europa:	3.140.253
Nafarroa:	339.886
Galizia:	79.864
Errioxa:	1.126.449
Maroko:	73.162
Katalunia:	891.572
Euskadi:	2.370.430
Valentziako E.:	38.277
Kantabria:	44.240
Andaluzia:	564.570
Asturias:	205.675
Kanariak:	86.953
Besteak:	3.782.599

ITSASKI FRESKOA (Jatorria kg-tan):

Amerika:	182
Afrika Besteak:	4.552
Europa:	322.336
Galizia:	2.427.748
Maroko:	4.609
Asia:	793.844
Katalunia:	6.436
Euskadi:	1.486
Valentziako E.:	59.707
Kantabria:	73
Andaluzia:	506.714
Asturias:	2.318
Besteak:	480.852

IZOZTUAK (Jatorria kg-tan):

Amerika:	742.725
Afrika Besteak:	777.553
Europa:	563.681
Nafarroa:	20.598
Galizia:	48.501
Errioxa:	89.891
Maroko:	44.857
Asia:	56.715
Katalunia:	388.222
Euskadi:	13.638
Australia:	45.729
Valentziako E.:	20.091
Zeelanda Berria:	9.494
Besteak:	52.828

GALEREN eta IRABAZIEN kontuak (eurotan)

SARRERAK	2025	2024
Negoio Zifraren Zenbatekoa	3.988.101	3.938.549
Arrain-merkatua	508.730	525.188
Fruta eta barazki merkatua	1.768.607	1.743.600
Hozkailu orokorra	458.614	435.492
Balio anitzeko merkatua	392.536	386.374
Merkataritza-gunea	170.767	183.849
Jarduera osagarriak	688.846	664.047
Sarrera osagarriak eta kudeaketako besteak	2.372.616	2.471.369
Aparteko sarrerak eta dirulaguntzak	4.981	22.867
USTIAPEN SARRERAK GUZTIRA	6.365.699	6.432.786
GASTUAK	2025	2024
Langile-gastuak	1.574.535	1.361.318
Soldatak, ordainak eta jasoak	1.205.218	1.004.964
Karga sozialak	369.317	356.354
Amortizazioak	24.887	86.609
Merkataritza-kredituen balio-narriadura	40.490	77.761
Beste ustiatze gastu batzuk	4.291.676	3.735.765
Kanpo zerbitzuak	4.187.273	3.644.777
Zergak	104.403	90.988
Aparteko gastuak	344	-
USTIAPEN GASTUAK GUZTIRA	5.931.932	5.261.454
Ustiatzearen emaitza	39.507	531.575
Emaitza finantzario positibo garbiak	394.259	639.758
Zergen aurreko emaitzak	433.766	1.171.332
Elkarteen gaineko zerga	-	-
EKITALDIKO EMAITZA	433.766	1.171.332

EGOERA balantzeak (eurotan)

AKTIBOA	2025	2024
Aktibo ez korrontea		
Ibilgetze materialak	4.781.481	4.736.584
Ibilgetze finantzariak	350	350
GUZTIZKOA	4.781.831	4.736.934
Aktibo korrontea		
Zordunak	425.296	412.467
Finantza inbertsioak	17.489.468	17.485.773
Periodifikatzeagatiko doikuntzak	29.037	25.342
Diruzaintza eta beste aktibo likido baliok. batzuk	479.743	656.826
AKTIBO ZIRKULATZAILEA GUZTIRA	18.423.544	18.580.408
AKTIBOA GUZTIRA	23.205.375	23.317.342
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2025	2024
ONDARE GARBIA		
Funts propioak		
Kapital izenpetua	5.636.178	5.636.178
Erreserbak	15.732.497	15.146.831
Ekitaldiko emaitza	433.766	1.171.332
Funts propioak guztira	21.802.441	21.954.341
ONDARE GARBIA GUZTIRA	21.802.441	21.954.341
PASIBO EZ KORRONTEA		
Hornikuntzak Epe Luzera	-	-
PASIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	-	-
PASIBO KORRONTEA		
Beste finantza pasibo batzuk	557.803	561.851
Taldeko enpresekiko zorrak	7.583	1.031
Merkataritza-hartzekodunak	608.409	543.421
Ordaingabeko ordain sariak	46.749	60.774
Epe laburreko hornikuntzak	7.379	-
Administrazio publikoak	173.043	188.550
PASIBO KORRONTEA GUZTIRA	1.402.934	1.363.001
ONDAREA + PASIBOA GUZTIRA	23.205.375	23.317.342

2025eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion kudeaketa-txostena

1. Negozioen bilakaera eta sozietatearen egoera

Mercabilbao S.A.ren 2025eko ekitaldiko emaitza ekonomikoak 433.767 euroko mozkinak aurkeztu ditu zergak ordaindu ostean, eta emaitza operatiboa % 62,97 jaitsi da, batez ere diru-sarrera finantzarioak murriztearen eta garbiketaren ataleko ustiapen-gastuak gehitzearen ondorioz. Baliabideak sortzeari dagokionez, Cash Flow-a 459 mila eurora iritsi da.

(a) Diru-sarrerren bilakaera

Ekitaldiko negozio-zifraren zenbatekoa 4.508.478 eurokoa izan da, eta, 2024ko ekitaldiarekin alderatuta, % 0,89ko igoera eragin du horrek, funtsean tarifak igotzearen ondorioz.

Kontratu zibiletan, merkatuko tarifa orokorren prezioak % 0,80 igo dira batez beste, merkatura sartzeko tarifak eta gainerako zerbitzuak mantendu egin diren bitartean. Negozio-zifraren hazkundera bultzatu duen beste faktore batzuk izan dira zerbitzu osagarriengatik eskuratutako diru-sarrerak handitzea eta kontsumo elektrikoaren osagaia, hozkailu orokorra barnean dela, diru-sarrerren murrizketa berdindu duena, bai arrainen merkatuan, batez ere, okupazio txikiagoa izan ostean eta bai merkatura sartzeko diru-sarrerak jaitsi eta gero.

Hornidurengatik diru-sarrerren kapituluan, % 7,80 gehitu dira, ekitaldian izandako kontsumo handiagoen ondorioz.

Ekitaldian zehar, eskualdatzeen bitartez eskuratutako 68 mila euroko diru-sarrerak izan dira, aurreko ekitaldiko 12 mila euroen aldean.

Finantza-emaitza garbiek 394.259 euroko mozkin eragin dute, eta aurreko ekitaldian 639.758 eurokoa izan zen. Horrenbestez, % 38ko murrizketa gertatu da; diru-agintaritzak interes-tasak murrizteko egindako politiken eraginez, nabarmen jaitsi da finantza-erakundeekin erreferentziatutako gordailuak kontratatzearekin lotuta gauzatu diren ezarpenen ordainsaria.

(b) Zerbitzuak ematea

Ustiatzearen gastuak, guztira, % 12,74 igo dira, eta 39.508 euroko ustiatze-mozkina izan da; hau da, % 92,57 jaitsi dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Nabarmentzea merezi du garbiketako eta hondakinen kudeaketako partidak igo izana, urte osoan kontratua gauzatu eta gero. Era berean, azpimarratzekoa da konponketa- eta kontserbazio-partida hazi izana, urtearen amaieran 3. pabiloian sortutako matxura elektrikoaren ondorioz. Oro har, kontratu gehienen prezioak berrikustek konpainiaren kostuen igoera esanguratsua eragin du.

Emaitzetan eragindako inpaktua da nabarmentzeko beste alderdi bat, orobat bezero berankorrek zor dituzten kopuruak berreskuratzeko aukera urriak, are erreklamazio judizial bidez ere, dakartzaten kargekin salmenta-postuak etorkizunean erabiltzea baldintzatzen baitituzte.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, Mercabilbaoren zerga-betebeharrek eragindako gasturik ez dago, zerga horri buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 39.1 artikulua aplikatzearen ondorioz, sozietatearen kapitala murriztu ondoren gauzatu zena, sozietatearen kapital osoa titulartasun publikokoa bihur zedin, titulartasun pribatuko akzioak amortizatuz eta sozietatearen estatutuak aldatuz.

(c) Inbertsioak

Mercabilbao S.A.k 69.784 euroko inbertsioa egin du 2025ean, hain zuzen, furgoneta bat eta orga-igogailu bat erosteko, biak ere elektrikoak; garapen iraunkorrekiko konpromisoaren barruko ekintza izan da, Mercabilbaoren helburu estrategikoetako bat baita "2030 agendaren" esparruaren baitan. Era berean, inbertsioak egin dira zaintzeko kamerak gehitzean eta merkatua digitalizatzean.

2. Giza Baliabideak

Langile-kostuak % 15,66 igo dira ekitaldian zehar, alde batetik, bizitzaren kostuaren arabera sektore publikorako soldatak egokitzeagatik, eta, bestetik, urtean zehar plantilla aldatzen joateagatik. Absentismo-maila esanguratsuak, ekitaldi honetan aldi baterako ezintasunak gehitu izanaren ondorioz, bereganatu egin du, neurri batean, egindako plantillaren birmoldatzea.

Erakundeek Elkarkidetza BGAEri egindako ekarpenei eutsi zaie, 2015eko abenduaren 29ko 48/2015 Estatuko Aurrekontuen Legea betez.

GASTUAK	2025eko abendua	2024eko abendua	2024-2025 aldakuntza	
Langile gastuak	-1.574.534,84	-1.361.318,24	-213.216,60	15,66%
Amortizazioak	-24.886,69	-86.609,37	61.722,68	-71,27%
Zergak	-104.402,81	-90.987,78	-13.415,03	14,74%
Konponketak eta Kontserbazioa	-407.016,53	-321.041,74	-85.974,79	26,78%
Zaintza eta segurtasuna	-508.706,86	-508.970,82	263,96	-0,05%
Garbiketa eta Arratoi-hiltzea	-1.628.484,96	-1.259.448,57	-369.036,39	29,30%
Hornikuntza gastuak	-1.229.938,66	-1.163.155,76	-66.782,90	5,74%
Beste kanpo zerbitzuak	-413.126,45	-392.160,36	-20.966,09	5,35%
Trafiko Hornitzeen aldakuntzak	-40.489,74	-77.761,22	37.271,48	-47,93%
Aparteko gastuak	-343,97	0,00	-343,97	100,00%
GUZTIZKOA	-5.931.931,51	-5.261.453,86	-670.477,65	12,74%
USTIATZEA E.	39.507,87	531.574,85	-492.066,98	-92,57%
EKITALDIA E.	433.767,27	1.171.332,42	-737.565,15	-62,97%

3. Sozietateak ekin beharreko arrisku eta ziurgabetasun nagusiak

Merkatuko okupazioa zertxobait hobetu da, % 96,62koa aurreko urtean % 95,82koa izan ostean, batez ere, arrain-merkatuan zenbait enpresa operadoreen okupazioa dela eta.

Arrainaren kontsumoak merkatu zentraletan eta, oro har, gizartean izan duen beherazko joera azken urteotan agertzen joan den gertaera da, frutaren sektorean, zorionez, gertatzen ari ez dena, merkaturatze-erregistroak mantenduz eusten ari baitzaio daukan postuari, merkataritza-marjinak eskuratzeko gero eta nabariagoa den borrokan.

Beharizan bat azpimarratzen du 2025ean hirugarrenek emandako zerbitzuen kontratu gehienen prezioak berrikusi osteko kostuen igoerak, Mercabilbaoren hedapen-proiektuan lanean jarraitzeko, espazioaren mugak etorkizuneko diru-sarreraren hazkundera eta kostuak banatzea eta xurgatzea baldintzatzen dituelako.

4. Sozietatearen bilakaera aurreikusgarria

2026rako aurreikuspen ekonomikoen arabera, hazkunde sendoaren, inflazio kontrolatuaren eta inguruko enpresen hazkunde nabarmeneko bidean gaude, mundu geopolitikoko ziurgabetasunak gorabehera, halaber kontuan hartuta ekonomiaren eta finantzen egitura onbidean eta merkaturatze-erregistro iraunkorrak abiapuntu, 2026ko ekitaldi egonkorra aurreikus dezakegula, bestelako mehatxu nabarmenik gabe, hala, 2031aren osterako, egun enpresa operadoreekin egiten diren kontratuen mugaegunerako, irudikatzen etorkizun pizgarriari ekin ahal izango diogu.

5. I+G+b arloko inbertsioak

Ekitaldian zehar, Ikerketa eta Garapen arloetako jarduerarik ez egin arren, berrikuntza teknologikoko proiektuak garatzen jarraitu dugu, Mercabilbao 4.0 digitalizazio-estrategiari jarraituz.

6. Norbere ekintzak

2025eko abenduaren 31n, zorroan ez dago sozietatearen akzio propiorik.

7. Finantza-tresnak erabiltzea

Mercabilbaoren finantza-kudeaketako helburuak eta politikak dira, zati bat sektore publikokoak, finantza-inbertsioak egiteko hiru urtetik beherako epea ezartzea, hegakorra izateko arriskurik ez izatea eta une oro finantza-merkatuarekin bat datorren errentagarritasuna lortzea.

Bai diru-arriskuak salbuesteko irizpide horiek, sozietate publikoak finantza-inbertsioak kontratatzerako garaian nahitaez bete beharrekoak direnak, bai eta merkatuaren okupazioaren egonkortasunak ere, biek ala biek likidezia-arriskurik eza erakusten dute, eta eskudiru-fluxuen estaldura bermatzen dute.

Ekinbide horretan, nabarmentzekoa da gordailuen errentagarritasuna pixkanaka murrizten ari zaigula. Hala eta guztiz ere, Mercabilbao SAK lortutako azken emaitzaren % 95 finantza-emaitzetatik dator. 2025eko abenduaren amaieran egindako azken eragiketan, % 2,27an kontratatuta, ekitaldian izandako beherazko bilakaera berretsi da.

Sozietateak inolako mailegurik edo kreditu-lerrorik irekita ez duenez, ez du arriskurik arlo horretan.

8. Finantza- eta aurrekontu-adierazleak

Finantza eta aurrekontu-adierazleak	2025	2024
LIKIDEZIA (P. Azidoa) (%)	13,13	13,63
KAUDIMENA (%)	16,54	17,11
ZORPETZEA EPE LABURRERA (%)	6,43	6,21
ZORPETZEA (%)	6,43	6,21
AUTONOMIA MAILA (%)	93,95	94,15
ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOA (%)	1,87	5,02
NORBERE BALIABIDEEN ERRENTAGARRITASUNA (%)	1,99	5,34
ZERBITZUAREN TARTEA (%)	7,22	20,19
AKTIBOAREN ERROTAZIOA (%)	25,90	24,88
AMORTIZAZIO-TASA (%)	99,68	99,89
Aurrekontua gauzatzea - sarrerak %	100,92%	106,22%
Aurrekontua gauzatzea - gastuak %	102,33%	96,18%

9. Ondorengo gertakariak

Ekitaldia itxi ostean negozioaren jarduerari eragin diezaiokeen gertaera garrantzitsurik ez dago.

merca(B)ilbao

Euskadi Agenda 2030 sarietan, Aurreratua sariaz aintzatetsitako 10 erakundeetako bat izan zen Mercabilbao; GJHekiko etorkizun jasangarriagoa eta lerrokatuagoa eraikitzeko Mercabilbaok egindako lanari egindako aitortza.

1 FIN
DE LA POBREZA2 HAMBRE
CERO3 SALUD
Y BIENESTAR4 EDUCACIÓN
DE CALIDAD5 IGUALDAD
DE GÉNERO6 AGUA LIMPIA
Y SANEAMIENTO

Pobrezia desagertzea

- GKEekin lankide gara, behar duten familiei laguntzen.
- Elikagai bankuei espazioak uzten dizkiegu.
- Handizkariak salgaiak dohaintzan ematea bideratzen dugu.

Dohaintzan emandako 346,04 tona elikagai.

Elikagai Bankuak Mercabilbaoko barrutian kudeatutako guztizkoaren % 53,6.

Goserik ez izatea

- Elikagaiekin, zaindu egiten ditugu bai kalitatea eta bai segurtasuna.
- Bizkaiko Elikagai Bankuaren lankide gara.
- Haurren elikadura osasuntsua bultzatzen dugu.
- Gardentasunaren eta lehia askearen alde gaude.

Km0ko elikagaiak.

Osasuna eta ongizatea

- Deustuko Arraun Kirol Elkartearen lankide gara, ohitura osasungarriak sustatzeko.
- Elikagaien higiene-osasun kontrola bermatzen dugu.

HIGIENE-OSASUN kontrola.

Kalitateko hezkuntza

- Eskoletako bisita hezigarriak eskaintzen ditugu.
- Hainbat mailatako prestakuntza ikastaroak ematen ditugu.
- Gazteenentzat, ohitura osasungarrien programak egiten ditugu.

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, ZENTZUMEN TAILERRAK.

Sektorea profesionalizatzeko, IKASTAROAK OROKORREAN.

Konpetentziak hobetzeko, PRESTAKUNTZA.

Genero berdintasuna

- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren partaide gara.

Edateko ura eta saneamendua

- Osasun-berme guztiak betetzen ditugu.
- Erabiltzaileentzako komun publikoak ditugu, eta garraiolariak erabiltzeko dutxak.
- Garbiketa lanetarako, putzuko ura erabiltzen dugu.
- Ez dugu ondoko ibaira ezer isurtzen.

Galindoko araztegira urak bideratzea eta tratatzea.

7 ENERGÍA ASEQUIBLE
Y NO CONTAMINANTE8 TRABAJO DECENTE
Y CRECIMIENTO
ECONÓMICO9 INDUSTRIA,
INNOVACIÓN E
INFRAESTRUCTURA10 REDUCCIÓN DE LAS
DESIGUALDADES11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES13 ACCIÓN
POR EL CLIMA16 PAZ, JUSTICIA
E INSTITUCIONES
SÓLIDAS17 ALIANZAS PARA
LOGRAR
LOS OBJETIVOS

Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea

- Hozkailuen errendimendua hobetzen dugu.
- Gaez argizatzea kontrolatzen dugu, sensorizazio bidez.
- Argi tradizionalak led argiekin ordezkatzea.

Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

- Langileen Estatutuaren baldintzak hobetzen ditugu, Hitzarmen kolektiboek esker.
- Sexu-jazarpeneko egoeretan, jarduera-protokoloak finkatzen ditugu.

Lan-harremanak hobetzea.

Industria, berrikuntza eta azpiegitura

- GJHen lerroko plan estrategikoak egiten ditugu.

Mercabilbao garapen jasangarriko helburuekin bat.

Desberdintasunak murriztea

- Lan-jazarpenaren aurka ekiteko protokoloak sortzen ditugu.
- Gizon-emakumeen arteko Berdintasun Plana onesten dugu.

Funtsezko datua: Lan-jazarpenaren aurka.

Hiri eta erkidego jasangarriak

- Sortutako hondakinak kudeatzen ditugu, ingurumenean duten inpaktua murrizteko.

Ingurumena errespetatzea.

Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

- Elikagaiak xahutzearen aurka ahalegintzen gara.
- Hurbileko elikagaiak sustatzen ditugu.
- Kontratatzeko prozeduretan, ingurumen-esleipeneko irizpideak txertatzen ditugu.
- Elikagai Bankuei elikagaiak dohaintzan emateko kanpainak sustatzen ditugu.

Hondakinak bereiztea eta sailkatzea.

Klima babesteko ekinbidea

- LED motako argiak instalatzen ditugu.
- Erabiltzaileak klima aldaketaren aurka kontzientziatzen ditugu.

Ingurumen politiken arloko kontzientzia

Bakea, justizia eta instituzio sendoak

- Bilboko Udalaren webean, Gardentasun atala elikatzen dugu.
- Protokoloak eta planak egikaritzen ditugu, jazarpenaren aurka, compliance, kode etikoa...

Gardentasun erabatekoa.

Helburuak lortzeko itunak

- Handizkako Merkatuen Mundu Batasunaren Biltzarretan parte hartzen dugu.
- GJHak bete daitezten bideratzeko, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko, sinergiak sortzeko eta harremanak sendotzeko sustatzen ditugu.
- Sinergiak sortu daitezten, elikadurarekin lotuta dauden era guztietako erakundeekin lankidetzak sustatzen ditugu.
- Lankidetzako akordioak eta hitzarmenak finkatzen ditugu, besteak beste, Bilbao Ekintzarekin edo Lanbiderekin.

Autobabesari eta segurtasunari buruzko alderdiak 2025

Lan Arriskuen Prebentzioa

Sarbide nagusiko garitan, Mercabilbaoren kokapenak eta oinarritzeko araudia adierazteko jardunbidea ezartzea, segurtasun-zaindariak eskura banatu dezaten informazio-liburuxka bat, zehaztuko duena merkatuko debeku orokorre, larrialdi-egoeretakoa bilguneei eta merkatuko pabiloien kokapenen identifikazioari buruzko informazioa.

PDA gailuetan Merkazaintza – Merkatua Kontrolatzeko Taldearen informazio-tresna berri bat instalatzea, Mercabilbaok kontratatzen dituen enpresen jardueren koordinazioaren arloan sarrera-kontrola egiaztatzeari dagokiona.

Mercabilbaoko botikinetan itsasgarriak ezartzea, errazago identifikatzeko, prebentzio-arloko kartelen osagarri izan daitezten. Mercabilbaoren furgonetan, lehen sorospeneke botikin eramangarri bat instalatzea.

Laneko arriskuak prebenitzeko borondatezko auditoretza egitea, eta aldeko txostena eskuratuz, guztia onetsita; sistemaren indargune moduan erregistratuta: prebentzio-plangintza, langileentzako informazioa eta prestakuntza, estalkietarako sarbidearen kontrola, altuerako lan-ekipoen mantentze-lanak, enpresa-jardueren koordinazioa, larrialdiak kudeatzea eta industria-legeriaren mende dauden instalazioak kudeatzea.

Mercabilbaoko lanpostuen ebaluazioa eguneratzea, eta Mercabilbaoren webguneko "Laneko Arriskuen

Prebentzioa" atalean Elikagai Unitatearen instalazioekin lotutako arriskuen inguruko informazioa eguneratzea.

Autobabeseko plana eguneratzea, eta prestakuntza ematea Elikagaien unitatea mantentzeko eta merkatua kontrolatzeko ekipoari. Horrekin batera, merkatuan ebakuazio-simulazio bat egitea. Simulazio-ariketaren jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan.

Suteen aurkako babes-armairuetan, horietan dagoen edukiaren banakatzeko xehatua eranstea, eduki hori gainbegiratzea eta kontrolatzea errazteko.

Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak indartzeko asmoz, barrutira sartzeko baldintzak zabaltzea eta murriztea azpikontrataturako langile autonomoentzat. Horretarako, nahitaez kontratatu beharko da prebentzio-baliabide bat.

Larrialdi-egoeretakoa izendatutako elkarguneei buruzko informazio-itsasgarriak banatzea.

Frutak eta barazkiak 2. eta 3. pabiloietan, merkatuaren funtzionamendurako oinarritzeko arauak jasotzen dituzten informazio-panelak ezartzea, eta larrialdi-egoeretakoa ezarritako bilguneak seinaleztatzea.

Segurtasun korporatiboa – Merkazaintza

2025. urteko ekitaldirako, merkatuko handizkako operadoreetako enplegatuen sarbideak berritzea.

Zaintza-zerbitzurako instalazioetan indarrean dagoen eginbidea eguneratzea, kontrol-erronden sistema eskatutako zerbitzu-txanda guztietara zabaltzea barnean dela.

Ibai aldeko oinezkoen sarbidean informazio-kartelak ezartzea, erabiltzaileei jakinarazteko erabiltzaileen txartelak egoki irakurtzeko modua zein den.

Merkatua Kontrolatzeko Zentroan eta merkatuko garita nagusian bistartzeko euskarri berria instalatzea, esparruko segurtasun pribatuko langileek gorabeherak identifikatzeko eta horrelakoetan ekiteko gaitasuna hobetzeko.

Dokumentu ofizialak eguneratzea; Elikagai Unitatearen segurtasunaren arloan, OSP Operadorearen Segurtasun Plana eta BPE Babes Plan Espezifikoak, eta, ondoren, Azpiegitura Kritikoak Babesteko Zentro Nazionalen entregatzea.

Pabiloietako handizkako postuetara eramatea merkatuan erretzeko debekuari buruzko informazio-itsasgarriak, horiek eransteko ikusgai dauden erakusketa- eta salmenta-eremuetako lekuetan.

Salmenta-jardunaldiak amaitu ostean, sarbide nagusiko erreietako hesiak blokeatzea, sarrera nagusia zaintzen duten langileek merkatura sartzeko hobeto kontrolatzeko.

Igandeetako salmenta-jardueretan, erabiltzaileen ibilgailuen kokapena hobeto kontrolatzea, sartzen hasteko ordutegia baino lehenago, Basauriko Udaltzaingoa laguntzarekin.

Erabiltzaileek abonatuaren erreia egoki erabil dezaten sustatzera zuzendutako informazio-kanpaina.

Perimetro-kartelak ezartzea, jakinarazteko animalientzako janaria uztea debekatuta dagoela.

Merkatuko erabiltzaile-txartela eskuratzea sustatzeko kanpaina.

Harpidedunentzako erreiko garitetan binilo opakuek jartzea, bai merkatuko sarrera nagusian, eta bai azokaren erdiko irteerari dagozkion garitetan.

Frutaren sektorean igandeko salmenta-jardunaldietarako sartzeko modu bat ezartzea, eta, Handizkarien Elkartek hala eskatuta, merkatuan sartzeko ordutegiak aldatzea.

Sarbide nagusian, abonatuaren erreia funtzionamendu-ordutegia aldatzea: astelehenetik ostiralera, 02:30etik 15:00etara.

Merkatuan kartel berriak ezartzea.

Bideozaintzako kamera berriak instalatzea, lehendik dagoen sistema handitu, modernizatu eta optimizatzeko.

Errei nagusian dagoen kamera ordeztzea, talka baten ondorioz kaltetuta baitago.

Merkatuko sarbide nagusiko abonatuaren erreia garitan, giltzaz ixteko sistema bat instalatzea.

Jaiegunetan merkatuan sartzeko segurtasun-neurri berri bat hartzea: barrutira sartu behar duen pertsona edo ibilgailu orok sisteman behar bezala erregistratuta egon beharko du, merkatuko erabiltzaile aktibo moduan.

Arrainaren 1. pabiloiko karga-kaien erabilera kontrolatzea eta gainbegiratzea.

Liztor asiarren habia bat kendu da, 5. pabiloi balioaniztuneko ipar sarbidean.

Pabiloietako komunetan oinarrizko jokabide-arauak gogoratzeko eta zabaltzeko informazio-kartelak jartzea.

Udaltzaingoari jakinaraztea azokaren perimetro inguruan kanpin-denda daukan pertsona bat dagoela.

Merkatua mantentzeko eta kontrolatzeko lantaldeek gaur egun darabiltzaten komunikazio-ekipoak gailu berriekin ordezkatzeko.

Merkatuko sarbide nagusian, Bulego Nagusiak merkatuan non kokatuta dauden azaltzeko liburuxka bat banatzea.

Arrainaren 1. pabiloian kontrol-eginbide berri bat txertatzea, edukiontzietarako aingurak eta ur-puntuetarako sarbideak une oro libre eta buxadurarik gabe izango direla bermatu ahal izateko.

2025ean instalazioen funtzionaltasuna eta modernizazioa hobetzea

Obrak eta kontserbatzeko lanak

Sarbideak:

Mercabilbaora ibilgailuz sartzeko ateetan, argiztatzeko ekipeak instalatzea.

Ibilgailuen kolpeen ondorioz hondatutako sarrerako eta irteerako hesiak berrezartzea, LED zerrendak eta horien babesak ere ordezkatzuz. Konponketa sarrera nagusiko garitan eta irteera nagusiko erreiko barandan.

Argizatzea eta hornidura elektrikoa

Nahitaez egin beharreko aldizkako ikuskatzea gauzatu tentsio-erdiko instalazio elektrikoan, ikuskatzuz hornidura-buruko transformadorea, linea aldatzeko sistema, 8 transformazio-zentroak eta 6 tximistorratzak.

2025ean, premiazko bi esku-hartze egin ditugu G.T.ko zirkuituko elementu mekanikoetan matxurak konpontzeko, Fruta eta barazkien 3. pabiloiko transformazio-zentroaren barruan. Mercabilbaok babes-gelaxka eta lineako gelaxkak ordezkatzeko onetsi du.

7-9 pabiloian kontagailu elektriko berri bat instalatzea, dagozkion babesekin eta entxufeekin.

Hartune elektriko berria instalatzea, dagokion koadro elektrikoa eta kontagailua alokatutako lokalean kokatzea barne.

Gasolindegia eta bulego nagusietako zerbitzaria lehendik dauden sorgailuetara konektatzea, itzalaldia gertatuz gero hornidura ziurtatzeko.

Fruta eta barazkien 2. eta 3. pabiloietan, guruztetako argiztate-sistema handitzea eta 16 presentzia-detektagailu jartzea nasetako argi-intentsitatea erregulatzeko.

5. pabiloi balioaniztuneko lehen solairuko korridorean, argiztate-sistema hobetu dugu, ekipo zaharren ordez LED teknologia ezarrita.

4. pabiloian, ekialdeko nasako argiak piztea gainerako nasetatik bereiztea.

6. pabiloiko tximistorratzaren ebakigailua eta haren osagaiak konpontzea, kobrezko kableatua lapurtu ostean.

Hondatutako argiak ordeztu ditugu salmenta-pabiloien barruan, nasetan, bideetan eta guztientzako komunetan.

Merkatuko instalazioetako argiztate-sistema automatikoak ikuskatzea.

Kalibratzeak eta ikuskatzeak

Suteetarako sistemen prebentzioko mantentze-lanak (su-itxalgailuak, sute-zentralak, sute-ahoak, mahukak, detektagailuak, etab.).

- Igotzeko sistemen mantentze-lanak (igogailua eta pertsonak igotzekoa).
- Kontrol-elementuak kalibratzea: birpizatze baskulak, hozkailuetako tenperatura-zundak eta gainerako neurketa-elementuak.
- Ikuskatzea estalkietako bizi-lerroak, altuerako lanak egiteko Norbera Babesteko Ekipamenduak eta gas-detektagailua.
- Emari-neurgailuaren arauzko aldizkako ikuskapena egin da, aldeko emaitzarekin.
- Ekipo elektrogenoak mantentze-lana, egoera txarrean dauden hainbat bateria ordezkatzuta.
- Izurriteen tratamendua, eta eremu kritikoetan indartzea. 2025ean, 257 desinfekzio egin dira.
- Pabiloietako megafonia-sistemaren mantentze-lanak.
- KDAren mantentze-lanak.

Hozteko eta girotzeko instalazioak:

Mercabilbaok 1., 2., 3. eta 4. pabiloietan kudeatzen dituen hozkailuen eta klimatizazio-ekipoen prebentziozko mantentze-lanak egin ditugu.

Fruta eta barazkien pabiloietako hozkailu-ganberetan, kanpoko panelak eta lurrungailuen hustubideak ordeztu ditugu.

Defentsa-konponketa eguneroko erreserbako hozkailu-ganberaren barruan.

Arrainaren 1. pabiloian hutsik dagoen postu bateko hozteko instalazioa ordeztu dugu, ikastaroak eman ahal izateko.

1., 2., 3. eta 4. pabiloietako hozkailu-ganberak sakon garbitzea.

Hozkailuetako matxurak konpontzea, mantentze-lan zuzentzaile moduan.

Bideak, aparkalekuak, nasak eta barruko zoruak:

Bideetan 1.600 m² eta nasetan zein salmenta-pabiloietara sartzeko arrapaletan 425 m²-ko konpondu ditugu.

Seinaleztatze horizontaleko 750 m² pintatu ditugu (zebrabideak, pasatzen uzteko seinaleak, erreiak mugatzea, etab.).

